

Larramendiren itzala Terrerosen euskal hiztegian

(The imprint of Larramendi on Terreros' Basque dictionary)

Pagola, Rosa M.

Deustuko Unib. Unibertsitateen Etorbidea, 24. 48007 Bilbo
rpagola@fil.deusto.es

BIBLID [1137-4454 (2010), 25; 117-137]

Jaso: 2009.05.13
Onartu: 2010.09.22

Ezaguna da Larramendiren eragina XVIII. eta XIX. mendeetako euskal idazleengan. Bestalde, orain arte ez da jakin Esteban de Terreros y Pandok, bere hiztegi ospetsuan batez ere, arlo ezberdinetatik euskarari egin dion ekarria. Lan honetan hori da azaltzen dena, hain zuzen: Terrerosek, bere hiztegian batez ere, Larramendirengandik jaso izan zuena eta, neurri on batean, baita berak bere kabuz sortutakoa ere.

Giltza-Hitzak: Larramendi. Terreros y Pando. Hizkuntzaren historiografia. Hizkuntza-ideiak. Diakronia. Euskara. Ortografia. Lexikografia.

Es conocida la influencia de Larramendi en los escritores vascos de los siglos XVIII y XIX. Por otra parte, hasta ahora era desconocida la aportación realizada al euskera desde distintos campos por Esteban de Terreros y Pando en su famoso diccionario. En el presente trabajo se expone precisamente el material recogido por Terreros en su diccionario, sobre todo de Larramendi, pero también, en buena medida, de su invención.

Palabras Clave: Larramendi. Terreros y Pando. Historiografía lingüística. Ideas lingüísticas. Diacronía. Euskera. Ortografía. Lexicografía.

On connaît l'influence de Larramendi chez les écrivains basques des XVIII^{ème} et XIX^{ème} siècles. Cependant, l'apport réalisé à l'euskera depuis différents domaines par Esteban de Terreros et Pando dans leur fameux dictionnaire demeurait jusqu'à maintenant méconnu. On présente précisément dans ce travail le matériel recueilli par Terreros dans son dictionnaire, qui est une œuvre essentiellement de Larramendi, mais qui est également, en grande partie, de son invention.

Mots-Clés : Larramendi. Terreros et Pando. Historiographie linguistique. Idées linguistiques. Diachronie. Euskera. Orthographe. Lexicographie.

1. AITZIN SOLASA

Esteban de Terreros jesuita bizkaitarraren lan handian sakontzeko aukera ezin hobea eskaini zen bere jaiotzaren III. mendeurreneko ospakizunean¹. Zientzia esparru ezberdinetara zabaltzen den jesuitaren ekarri aberatsa orain ari da agertzen eta argitara ateratzen. Hala ere, zenbait arlo ezagunagoak izan dira eta, azterketa mailan, ibilbide luzeagoa izan dute haren hiztegitik abiatuz², gaztelaniaren inguruko lexikografiak batez ere.

Terrerosek euskarari eman zion gunea, aldiz, ez da ezaguna izan eta beti kanpoan gelditu da azterketa lexikografikotik. Badu, ordea, zer aipatu eta arakatu bai *Paleografía* lanean³ nola hiztegian, eta inoiz ez da berandu aurretiko hutsegiteak betetzen hasteko. Hain zuzen, horren inguruan aritu nintzen ni neu eta euskarari buruz egiten dituen aipamenak eta agertzen dituen hizkuntz ideiak aztertu nituen euskararen historiografia osatzeko eta, bide batez, gaztelaniarena ere laguntzeko⁴. Bestalde, Terrerosen *Hiztegia* gaztelariarena bada ere, hitzen sarrerak frantsesez, italieraz eta latinez eman zituen. Ez zuen, bada, elebakarreko hitztegia egin, eleanitzekoa baizik⁵. Hauei gaineratu behar zaizkie grezieraz eta euskaraz sartu zituenak, hitzen jatorria adierazteko, bai, baina ez horretarako soilik, euskararen kasuan behintzat. Bestela, nola ulertu Terrerosen berak, gero argitaratzaileek errespetatu ez zuten izenburua *Hiztegiari* ematea?⁶ Beste hizkera berezi batzuek ere batzen ditu, hala nola espainolaren penintsulako hizkera dialektalak: asturianismoak, Andaluziakoak; gaztelaniaren Cuenca, Madril, La Mancha, La Alcarria, Murziakoak; baita Aragoi, Errioxa eta Kataluniakoak ere; eta, azkenik, Ameriketakoak ere bai. Horiez gain, zenbait txinerakoak edo txineran jatorria zutenak; eta aipatzekoa da nola biltzen duen “ijituen jargoia” ere, aberats eta interesgarria. Hitz batez, lan izugarri handia edozein aldetatik begiratuta.

1. Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak antolatu zuen kongresu monografikoa “Esteban de Terreros y Pando: bizkaitarra, poligrafoa eta jesuita XVIII. mendeko erronken aurrean” izenburupean. Han emandako txostenak, komunikazioak eta beste zenbait material Larrazabal, S. eta Gallastegi, C. (Koord.), (2008) argitalpenean ikus daitezke.

2. *Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes y sus correspondientes en las tres lenguas francesa, latina é italiana*, Esteban de Terreros y Pando (1786-1793).

3. *Espectáculo de la Naturaleza, o conversaciones acerca de las particularidades de la Historia Natural* lanaren XIII. alea ‘Paleografía’ri eskaintzen dio, hain zuzen. Ikus, E. Terreros y Pando (1758).

4. “Terreros y su contribución a los estudios de la lengua vasca”, lehenengo oharrean esaten den Kongresuan irakurri zen txostena, in Pagola (2008a).

5. Horrela nazioartekoa bihurtu zuen hiztegia berak sarreran esaten duen bezala: “Todo esto me movía a tomar el trabajo de formar un Diccionario completo, en cuanto me fuese posible, no solo castellano, sino también de unos idiomas que le hiciesen universal en casi toda la tierra: tales me parecieron añadidos al nuestro, el Francés, el Latín y el Italiano, idiomas con que se puede hoy ciertamente dar la vuelta al universo” (Sarrera: vj. or.).

6. Izenburuak horrela zioen: “Diccionario en Español, Frances, Latino, Italiano, Vascongado, Griego”. Honi buruz ikus Pagola (2008a: 424-425).

Terreros izan zen lehenengo lexikografoa ohartzen XVIII. mendean zientzietan gertaturiko aurkikuntza berrien terminoak hiztegian jaso behar zirela, eta horiekin batera beste arlo semantiko aunitzetako hitzak ere bildu zituen⁷; errepertorio dialektalez eta bestez, noski. Bestalde, Terrerosek bere *Hiztegian* euskarari eman zion presentzia ez zen txikia izan. Egin zion sarre-ran esaten zuen: “he tenido que poner la mira en 180.000 términos [...]; de que van en cuatro idiomas y muchas de ellas en seis” (Sarrera: xxxiv. or.). Zenbat dira sartzen dituen euskal hitzak? Esan daiteke, azepzio bakoitzari ezartzen dizkion aldakiak alde batera utziz, 1729 direla. Merezki zuen, bada, turtzioztarrari euskararen historiografian ere leku bat egitea⁸.

Terrerosek bere herrian ez zuen euskaraz ikasteko ez girorik ez aukerarik izan, eta euskaraz entzutekorik ere ez, gurasoak eta sendia Turtziozkoak zirelako. Gazterik irten behar izan zuen herritik Madrilera, aita hil baitzitzaion, eta ordutik aurrera bere bizitza guztia Euskal Herritik kanpo eman zuen, tar-teka hona zenbait bidaia egin zituen arren. Hala ere, bere lanetan, hiztegian batez ere, euskararen presentzia nabarmenaz gain, Euskal Herriari eta euskarari berari zizkien errespetu, miresmen eta maitasuna nonahi agertzen dira. Beraz, sahiets ezin daitekeen galdera hauxe da: nondik eta nola sortu eta garatu zitzaion sentimendu hori? Eta erantzuna, zalantzarik gabe, bat da, Aita Larramendiren eraginagatik. Ez da zail bi pertsonaia hauek erkatzea eta elkarren artean ezaugarri amankomunak aurkitzea: biak izan ziren jesuitak, formazio sakonekoak eta langile handiak; biak euskaltzaleak; biak euskal apologistak; biak, besteak beste, lexikografoak eta hiztegiak egitean helburu ezberdinak izan bazituzten ere. Azkenik, esango nuke, biak izan zirela, hainbat gauzetan, aitzindariak.

Edonola ere, zenbait puntutan, Aita Larramendik aurrena hartu zion, besteak beste zaharragoa zelako, Larramendi 1690. urtean jaio baitzen eta Terreros 1707.ean. Biak adin beretsuz hil ziren: 76 urtez andoaindarra eta 75ez Turtziozkoa. 1767an, jesuitak Espainiatik erbesteratuak izan zirenean, Terrerosek Italiara joan behar izan zuen eta han hamabost urte egin zituen hil arte, 1782an. Larramendi ez zuen harrapatu herbesteratzeak, 1766an hil baitzen. Hamazazpi urteren aldia ez da, agian, behar adinakoa gipuzkoarra-ren lanek besteenetan eraginik izan zutela esateko, baina, kasu honetan, zenbait xehetasunek horrela izanzen zela iradokitzen dute. Larramendiren *Diccionario Trilingüe* 1745ean argitaratu zen. Ez dakigu noiz hasi zen hiztegia egiteko informazioa jasotzen, baina Loiolara bildu zen bezain laster hasiko zen ziurrenez, beraz, 1734. urtearen inguruan⁹. Terreros Larramendiren hiz-

7. 16 talde ezberdinetan kokatzen dituzte Azorin Fernándezek eta Santamaría Pérezek Terre-rosen *Hiztegian* jaso dituzten 189 arlo semantikoak (2004: 55-56).

8. Aurreko argitalpenean esaten genuen 1.200 zirela biltzen zituen euskal hitzak. Baina, bere *Hiztegia* berriro ere zehazki arakatu ondoren, hitzen kopurua goian esan den zenbakitara gehitu behar da. Hitz zerrenda osoa Pagola (2008b) lanean, hiztegian jaso diren agerpen guztiak, bakoitzari dagokion gaztelaniazko sarreraz eta esanahiez osaturik, biltzen da.

9. P. Altuna (2002: 263).

tegia argitaratu zen urte berean, 1745ean alegia, hasi zen berea egiten¹⁰; izan zuen, bada, haren lana eskura izateko aukera. Bestalde, euskarazko hitzen hiztegia egitearen xede nagusia gaztelaniazko hainbeste hitzen euskal jatorriko etimologia ematea izan zuen, eta Terroros ere, euskarazko hitzak sartzen zituenean, ez zen helburu horretatik hain urruti ibili. Eskutara izan ez ezik, ongi miatu ere egin zuen, askotan aipatzen baitu Larramendi eta haren *Diccionario Trilingüe*, nahiz “Sarreran” nahiz bere hiztegiko euskal hitzen sarrera aunitzetan: “Pongo al Diccionario del Padre Manuel de Larramendi por ejemplo...” (Sarrera: v. or.); “V. El Padre Manuel de Larr. Dicc. Tril. donde trahe...” (Sarrera: xxj. or., 1. oharrean). Gutxiagotan bada ere, Larramendik idatzi zuen lehenengo lan apologetikoa ere aipatzen du¹¹. Ez dugu inon aurkitu, ordea, hurrengo urtean, 1729an, argitaratutako *El imposible vendido. El Arte de la lengua bascongado* buruzko aipamenik¹². Larramendiren itzala Terrorosen arlo ezberdinetako lanetan agertzen da, baina hemen, hizkuntzaren eremura mugatuz, lexikografiari dagokiona, gaitetik bada ere, azaltzen saiatuko gara.

2. TERREROSEN IDEIA LINGUISTIKOAK

Terrorosen formazioa sakona zen, aberatsa eta arlo aunitz hartzen zituen. Pertsona jakintsua zen, hitz honen ohiko esanahian. Iritzi tinkoetakoa zen, bestalde, eta ez zen inoren iritzietara nolana hain makurtzen. Gogora dezagun, esaterako, *Real Academia de la Lengua Castellana* aurretik egin zuen hiztegia goraiatu arren, berak bere hiztegiaren sarreran sailhestu egiten ditu Akademiak ezarritako irizpideak, eta jokabide bera ageri du hitzen hautaketan ere¹³. Erret Akademian sartzeko eta bertan parte hartzeko gomitari uko egitea ere aski esanguratsua da¹⁴. Halaber, Terrorosek ideia linguistiko pertsonalak zituen eta egia bilatzen eta bere ondorioak ateratzen saiatzen zen. Pluche abateak idatzitako hitzak ez zituen oso gogoko izanen, lana gaztelaniara berak itzuli zuen arren:

La Lengua Española, [...] encerrada en un rincón del Mundo**, y no habiéndose distinguido en la literatura si no es por medio de libros de devoción**, que se pueden muy bien suplir, no combida a persona alguna a aprenderla.

Terrorosek berak ipinitako asteriskoei ohar hauek erantsi zizkien hurrenez hurren:

10. M. Alvar Ezquerrak 1745ean hasi zuela esaten du; urtea finkatzeko, Terrorosek berak hiztegia egiteko eman zuen ordu kopuruaren testigantza oinarritzen da, hirurogei mila baino gehiago izan zirela esaten baitu (Sarrera: ix. or.).

11. *Sobre la antigüedad y Universalidad del Bascuence* (1728), alegia.

12. Ezta ere ez aipatzen 1736. urtean, Madrilen, Larramendik argitaratu zuen *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria. Questión decidida si las provincias de Bizcaya, Guipúzcoa y Alaba estuvieron comprendidas en la antigua Cantabria*.

13. Ikus E. Jiménez Ríos (2008: 795. or. eta hur.).

14. Ikus Alvar Ezquerri (1987: xvi) eta P. Álvarez de Miranda (1992: 565)

A casi toda la América descubierta, buena parte de Asia y muchos otros parages de Europa en que se habla la Lengua Española no parece justo llamarles un rincón del Mundo, siendo la mayor parte de él,

Las Bibliothecas de España nos dicen que no está su Nación tan pobre de Libros de Literatura; y tal vez las estrangeras han sabido aprovecharse de ellos¹⁵.

Bazuen, bai, nortasuna eta kemena bere ideiak agertzeko eta, behar izanez gero, haiei eusteko ere. Euskarari dagokionez ere irmoki eta modu ezberdinez ematen du aditzera bere iritzia¹⁶. Iritzi hau, agian, ez da bera-gandik espero zitekeena, izatez objektiboa eta arrazionalista baitzen, baina, bere garaikoa izaki, XVIII. mendean defenditzen ziren ideien inguruan mugitu zen, beti ere euskararen alde tinko eginez. *Paleografía española*¹⁷ lanean, erromatarrak etorri baino lehenago Penintsulan mintzaten ziren hizkuntzak deskribatzen dituenean, ez dirudi arazorik duenik euskararen kokapena ezartzeko: “a excepción de la Cantabria, que conservó su antiguo idioma, que oy llamamos Bascongado, o Vascuence” (1758: 6). Penintsula guztiko hizkuntz egoeraz, berriz, ez zuen hain garbi hizkuntza bakar bat edo asko mintzaten ote ziren, zalantzan uzten baitu, pasarteren batean erre-paro gutxiagoz esaten badu ere: “la lengua de los españoles originarios era entonces acaso sola y única la que ahora llamamos vascongada” (1755: 338). Aldiz, *Paleografiaren* bigarren edizioan, hiru urte geroago, zalantza berdina agertu arren, aldaketa esanguratsu bat eransten dio, egin zite-keen hizkuntza bakarra dialekto askotan banandua egongo zela iradokiz¹⁸. Garbiago mintzaten da Hiztegiaren sarreran. Hizkuntza anitzen ideia baz-tertu gabe, Espainiako lehenengo hizkuntza euskara izan zela esateko ez du kezka handirik:

Sea el Lenguaje primitivo de España el que se fuese: háyanos venido con Tubal [...] ó Tarsis [...] como lo han querido tantos; ó solo con sus sucesores, a que se inclinan otros [...], haciendo como quiera su viaje desde los Campos de Senaár, como uno de los setenta y dos Idiomas en que se confundió ó dividió [...] aquel primero infundido por Dios en el principio á nuestros primeros padres.

15. *Espectáculo* lanaren barruan txertatua dagoen “Carta de un padre de familias” idazkian dago (XI. alean, 1773: 163-164. or.).

16. Terrerosen euskal apologista bezala eta euskararen inguruan zituen ideiak hemen baino zabalago azaltzen dira (Pagola, 2008: 411-418 eta 420-423 orrialdeetan).

17. N. Plucheren obran *–Espectáculo de la Naturaleza* (16 ale), gaztelaniara Terrerosen itzulia– kokatua dago eta XIII. alea da, hain zuzen. Lan honen egiletza inoiz zalantzan jarri bada ere, Terrerosena dela esango nuke, besteak beste, euskarari ematen dion tratamenduagatik, Andrés Marcos Buriel jesuitaren laguntza izan bazuen ere Pedro Álvarez de Mirandak (2008: 134) eta Javier Burrieza Sánchezek (2008: 325-326) esaten dutenez.

18. “[...] o fuese una general, hablada con diversidad de muchos Dialectos, como lo tenemos por cierto, (mejor informados en esta reimpression, así en esto, como en una, u otra cosa, que se hallará diferente” (1758: 201).

(Sarrera: j. or.). Eta hori garbi azalduz bukatzen du: “Haya quedado este primer lenguaje, como testimonio auténtico y perpetuo, retirado y conservado en las montañas de la Cantabria según piensan probar eficazmente algunos” (Sarrera: j. or.).

Euskara zaharraren hedadura handiaz ere ez du dudarik:

[...] y habiendo parajes en España, cuatro, y aun seis veces mas apartados entre sí que los Lugares mas distantes de los actuales Bascongados, es natural fuese mayor la diversidad de los dialectos Bascongados de toda España, que los que actualmente se conservan en estos parajes tan reducidos (1987: 227).

Eta *Paleografiaren* bigarren edizioan adierazi zuen dialekto anitzen ideia, zalantzarik ez dadin izan, berrito hiztegian batzen du “bascuence” sarreran, honela deskribatzen baitu euskara: “BASCUENCE, idioma bascongado, primitivo, segun toda apariencia, y universal a por mucho tiempo en España, aunque con diversos dialectos” (1987: 227). Eta euskararen handia eta aintza kantatzen ditu hitz gutxitan Bartzelonari ematen dion sarreran:

[...] nos hace dueños del honor de no necesitar tanto como buscamos fuera, por mas que se afecte el gusto á jeneros extranjeros, manteniendo en nuestro seno, y Peninsula en la lengua Bascongada una lengua *madre, incorrupta, y primitiva*, que nos vino *sin mezcla* de los campos de Senár: gloria que no sé que la pueda probar hoi día nación alguna, sin excluir la Hebréa, y la Griega (1987: 221).

Jaso daitezke aipamen gehiago ere gai honen inguruan, baina aski dira ekarritakoak. Haren ideiak laburbilduz, Terrerosentzat euskara zen: hizkuntzama, Penintsula Iberiarrean lehena, dialekto askotan banatua, aratza, nahastu gabea esan nahi baita, eta, gero sartu ziren hizkuntzen eraginez, erabilera eremua hagitx murriztu zitzaiona. Edonola ere, ideia horiek ez dute itsutzen. Gaztelaniaren jatorria euskaratik bereizten du eta, metodo erkatzailearen bitartez, Penintsulako hizkuntza erromaniko guztiak latinetik datozela argi uzten du:

Mas à excepcion de la lengua Vascongada todas las demás, que se hablan oy en España, es à saber, la Castellana, llamada por antonomasia *Española*, la Gallega, y Portuguesa, la Catalana, y Valenciana son hijas de la Lengua Romana ó Latina, del mismo modo que lo son la Italiana, y la Francesa (1755: 203).

Idea horiekin beti batera joan izan dena Kantabrisismoaren kontzeptoa izan da. Aurreko aipamen batean ikusi da Terrerosen ere erabiltzen zuela: “a excepción de la Cantabria, que conservó su antiguo idioma, que oy llamamos Bascongado, o Vascuence”. Badirudi bat egiten duela, garai hartan hainbat euskaltzalek eta euskararen apologistek egiten zuten bezala, erromatarren garaiko kantabroen lurraldea euskaldunen lurrarekin. Terrerosengan, neurri on batean, horrela da, *Cantabria* hitza Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeak adierazteko erabiltzen baitu eta *lingua cantabrica* euskararekin identifikatzen baitu. *Bascuence* hitzaren sarreran horrela esaten du: “En Latín se dice *Lingua Cantabrica*” (1755: 227). Ekar daitezkeen erreferentziak ugariak eta

benetan kuriosoak dira euskaldunak eta kantabroak bateratuz¹⁹. Hala ere, jakintsua eta nortasunekoa zenez, garbi bereizten zituen bi garaiak: bata historikoa, zeinetan kantabrismoak dena bat eta bakar bezala hartzen zuen, eta bestea, garaikidea zena, kasu honetan ongi bereizten zituelarik euskara eta euskarak hartzen zituen lurraldeak eta jendeak. Ongi bereiziz *Cantabria* terminoa oraingo lurralde, hizkera eta bertako jendea adierazteko bakarrik.

Orain arte azaldu ditugun Terrerosen ideia hauek nondik jaso zituen? Lehenengo eta behin, esan behar da Terreros oso zorrotza izan zela iturrien erabileran. Izan ere, hain hiztegi handi eta aberatsa egin ahal izateko mota guztietako liburuak behar izan zituen, lan metalinguistikoak, hiztegiak alegia, baita beste iturri linguistikoak ere, zientifikoak, teknikoak, juridikoak eta abar, hizkuntza ezberdinetakoak ere biltzen zituelarik. Euskararen inguruko lanak ere irakurri zituela ikusten da, eta zeintzuk izan ziren irakurri zituenak jakitea ez da arazo, beti aipatzen baititu besteengandik jasotzen zuen informazioaren iturriak. Tubalen teoriak hitz egiten duenean, esaterako, Florian Ocampo, Esteban de Garibay, Alfonso García Matamoros ekartzen ditu. Hala ere, behin eta berriz eta ez bairik gabe ekartzen duen autoritatea Larramendi da:

V. El Padre Manuel de Larr. *Dicc. Tril.* donde trahe cosa de mil voces castellanas propias del Basc. y entre ellas nueve que puso el P. Mariana en su historia de España por Godas, ect. Y esto mismo confirma en su obra *De la Universalidad y Antigüedad del Basc.* alegando otras pruebas no poco eficaces y demostrando que los que han procurado defender lo contrario, hablan sin conocimiento de causa por no entender el Bascuence (1987-1: xxj, 1. oharra).

Gure ustez, Larramendi da, besteen gainetik, eragingarriena turtzioztarren ideietan. Ez dago, beraz, besterik gehitu beharrik, eta *De la Universalidad* ere aipatzen duen arren, Larramendiren hiztegia da batez ere kontutan hartu behar dena, Terrerosen hainbeste ibili zuena eta gero ere aldiro aldiro aipatuko dena. Bestalde, esan behar da baita ere Larramendiren *Hiztegiaren* sarrerako bigarren atalak, “Que el bascuence es la lengua primitiva y universal de España” izenburukoak, 96 orrialde duenak, *De la Universalidad* deko guztia jasotzen duela.

3. TERREROSEN ORTOGRAFIA VS LARRAMENDIRENA

Ez dugu hemen Terrerosen ortografiaren eremuari egin zion ekarria aztertuko, oso interesgarria, aski urratzailea eta aberatsa bada ere²⁰. Izan ere, egin zuen lanean, hiztegi batean alegia, ongi ohartu zen zein garrantzitsua zen grafia egokia erabiltzea, eta erabiltzen zuena alde aurretik ongi azaltzea. Horri eskaini zion zati handi bat hiztegiari egin zion sarreran, honek hartzen dituen orrietatik % 44 ortografiari zuzentzen baitizkio. Ez zen, hala ere, ongi

19. *Cantabrismoa* Terrerosen lanean gehiago ikusteko, Pagola (2008: 418-420).

20. P. Sánchez-Prietok eskaintzen dio lan bat (2008).

dokumentatu gabe, bere kabuz eta nolnahi idazten hasi, XVI-XVII. mendeetan ortografiari buruz idatzi zuten egile garrantzitsuenen lanak aurretik aztertu bait zituen²¹. Ideia nagusiak bikain finkatu zituen, eta aisa laburbil daitezke hitz gutxitan. Batetik, ortografia eta etimologia elkarrekin lotzen ditu, eta biak aztertu ondoren, honako jokabide hau hartzen du: “Visto ya que no es posible, ni nos conviene seguir aquellos dos principios de uso constante y origen, solo queda que elegir el de la pronunciación”; eta jarraitzen du:

Así que un idioma solo obliga á saber el significado de la voz, pronunciarla segun las letras que tiene y escribirla como se pronuncia [...]. Esto ejecuto en esta obra y esto parece que enseña no solo la autoridad sino tambien la razon (Sarrera: xxij. or.).

Hiru arau garbitara lotu arren, beretzat garrantzitsuena lehenengoa da: hitz egiten den bezala idatzi behar dela. Lebrijaren hitzak jasoz: “Tenemos de escribir como hablamos y hablar como escribimos”; eta honen arrazoia: “por que las letras son el depósito de lo que las fiamos y solo las fiamos la pronunciacion” (Sarrera: xxij. or.).

Grafia guztien inguruan azalpen zehatzak ematen ditu. Hots bakoitzerako erabiltzen ziren grafia, latinezkoak, zenbaitetan grekoak ere barne, aztertzeko, iritziak aldeko eta kontrako arrazoiz hornituz. Gazteleraz idazten duenez eta gaztelerako hitzak biltzen dituenaz, erabiltzen dituen grafia banan banan azaldu eta justifikatu egiten ditu. Esaterako <h> ri buruz kasu ezberdinak bilduz eta testuinguruaren arabera grafia horren erabileraren alde eta kontrako arrazoiak azaldu ondoren, horrela bukatzen du:

Con esto queda dicho como de paso el uso que hago de la *h* en este Diccionario, las voces en que me sirvo y en que me descarto de ella y que la cuento justamente entre las letras (Sarrera: xxvij. or.).

Euskararen ortografiari buruz ez du ezer esaten. Hala ere, euskarazko hitzak idazten zituenean, grafien sistema tinkoa eta euskal hotsetara lotua erabiltzen zuen, gaztelaniakoak idazteko jarraitu zituen arauen arabera, bere garaiko nola hurrengo mendeko hegoaldeko euskal idazleen erabileratik aldenduz²². Kasu zailagoak ere badira, esaterako, gaztelaniak bere sistema fonologikoan ez zituenean euskararen zenbait hots, hala nola <tz>, <ts> hotsak, euskal idazleak grafia eredurik gabe aurkitzen ziren, baina turtziozkoak, gehienetan, koherentzia bat erakusten zuen horien idazkeran. Galde daiteke, noski, berak asmatutako sistema zen ala, honetan ere, Larramendiri jarraitzen zion.

21. Lebrija, Alejo Vanegas, Juan de Lama, Antonio Bordazár Artazu, Salvador Mañer, besteak beste.

22. Mitxelenak (1987: 413) zioen bezala: “En nuestro caso, además, las grafías no dependen solamente de la época: están calcadas, sin más cambios que los estrictamente inevitables, de las empleadas en lenguas vecinas”.

Larramendi euskararen hotsak idazten ere aurreratua izan zen, hegoaldean ohikoak ez ziren grafiak erabili zituelako, Gainera, are meritu gehiago zuen euskalkiak ere kontuan izan zituelako, eta egiten dituen deskribapenak eta balorazioak bere pertzepzioan oinarrituak daudelako. Hala ere, euskalki guztietan ez zuen ongi interpretatu entzuten zuena edo, agian, entzuteko aukerarik ez zuen izan. Zubereraz ari naiz, testu idatzietako <ou> eta <u> grafiak gaitzetsi egiten baititu. *Corografía* lanaren azken aurreko kapituluan “De los dialectos del vascuence y del particular de Guipuzcoa” deritzanean²³, zenbait arau ortografiko eman zituen, grafia batzuk onetsiz eta beste batzuk baztertuz: <ou>/<u>; <k>/<qu>, <ç>/ <c>, <z>; <h>; <x> grafien inguruan, batez ere. Fonetika mailan ere, zenbait hotsen deskribapenak egiten ditu eta, horiekin batera, ahoskatzeko arauak ematen ditu, ezaugarri suprasegmentalak barne. Baina, ziurrenez, Terrerosek ez zuen lan hori irakurtzeko aukerarik izan, *Corografía* XIX. mendean, bera hil eta ehun urte geroago argitaratu baitzen²⁴. Beharrezko gertatzen da, beraz, nolakoa den *DT*-an darabilen sistema begiratzea. Segurtasuna erakusten du gehienbat, beste idazleek zalantzak eta txandaketak agertzen zituzten kasuetan: leherkarietan, igurzkarietan eta, batez ere, gaur egun <tz>, <ts> grafiez idazten diren afrikarien hotsetan. Aurkitzen dira, hala ere, txandaketa grafikoak, baina interesgarriak gertatzen direnak, ziurrenez ahoskerekin lotzen ziren polimorfismo kasuak izango zirelako. Hemen adibideren batzuk: ‘chaboya’, ‘saboina’, ‘jaboea’. Nondik, berak ematen duen azalpena jarraituz, <ch> sabaiko afrikaria zen eta <j> belarea eta igurzkaria.

Terrerosek darabilen sistema grafikoa Larramendirenarekin erkatuz, andoaindarrarena jarraitu zuela eskuarki esan daiteke, kasu batzutan harenetik aldendu egiten zelarik. Turtzioztarrak tinkotasun gutxiago ager dezake, baina bien artean dauden ezberdintasunak txikiak dira. Jarraian, Terrerosen grafia interesgarrien deskribapena eta Larramendirena azaltzen dira.

Terrerosen txistukarien sistema aski tinkoa eta txandaketa gutxikoa da: ‘lapaza’, ‘gatzelua’, ‘ezpata dantzá’, ‘putzua’, ‘musukatzea’, ‘lapitza’, ‘sotrotsa’, ‘atsecabetu’, ‘muquitsua’. Hala ere, badaude zenbait polimorfismo grafiko. Mihipunta hobietako igurzkarian, <ss> bikoitzaz: ‘passaldia’, eta afrikarian, <s> soilez eta luzez idatzita: ‘ebasi’ hitzean, esaterako, bietara. Baina, ematen diren grafia bikoitzak ez dira beti polimorfikoak, izan dezakete balio bereizgarria ere, esaterako, <zz> eta <tz> ren artean: ‘galera-zzaya’ (galera+zaia) eta ‘galeatzarra’ (‘tzarra’, haundia alegia). Larramendik, *DT*an: ‘ebatsi’, ‘pundonorosua’, ‘galerazaya’.

Sabai aurreko afrikaria beti <ch> grafiaz: ‘chalma’, ‘chancha’, ‘chapela’, ‘chartelá’, ‘chiquerra’, ‘chiquia’, ‘cincha’, ‘posta echea’. Sabaiko igurzkari ahoskabearen kasuan, grafiak txandakatuz: <ch>, <sy>, <zy> ‘chea’, ‘chardiña’, ‘chardinaria’, ‘queichá’, ‘syea’ eta ‘chea’, ‘cheatu’, ‘quisyerá’, ‘gosyo’ eta ‘gozyo’. Larramendik ere txandaketa berdinak.

23. *Corografía* (1969: 296 eta hur.)

24. Aita Fitak argitaratu zuen 1882an. Ikus Larramendi (1969: II) argitalpenean, Tellechea Idigorasen sarrera.

Aipagarria da, hitzaurrean eta hiztegiaren gorputzean, hainbat hitzetan <J> grafia marra batez erdibituaren erabilera. Agian, sabaiko hurbilkaria adierazteko? Beti hasierako posizioan, adibiderako: 'josi', 'jostaeta'. Hurbilkaria da hasierako posizioan darabilenean <i>: 'iyuncia', 'iyunciteria'. Larramendik, DTan: 'josi', 'jocoa', 'yocoa', 'iyuncia'. Aldiz, <j> belare igurzkarri ahoskabea izango zen honako kasuetan: 'jaka', 'jalea', 'jubileoa', 'jubetéa'.

Interesgarriak dira Terrerosen zenbait hitzetan gertatzen diren aldaketak, kasu hauetan fonetikan oinarria dutenak. Ebakeraren arabera sailkatuz, hona adibide batzuk. Leherkari sailean: 'biloa'/'piloa'; 'bizcochoa'/'bizgochoa'²⁵; 'pretalá'/'bretala'; 'pretiña'/'bretiña'; 'catiberia'/'gatibueria'; 'costatu'/'gostatu'; 'catibú'/'gatibú'; 'cayola'/'gayola'; 'giringa'/'siringada'. Inoiz, txistukarienean: 'siloa'/'ziloa' ('silo'); 'sangria'/'zangria'; 'quijera', 'quisyera'. Hotsen aldaketa txandaketa gabe: 'cenzáya', 'cerrá' ('sierra'). Klasikoa den txandaketa, banaketa dialektalez gertatzen dena, p/f-ren artekoa: 'prescoa'/'frescoa'; 'pulleroa'/'fulleroa'. Baita, hasierako posizioan, leherkari belare ahoskabearen presentzia eta honen falta: 'kabia'/'abia'; 'condarra'/'ondarra'; edo posizio berean, bizkarhobietako igurzkarriarekin gertatzen dena: 'zapoa'/'apoa'; 'zurriaga'/'azurria'. Kasu gutxi dira sudurkariarekin gertatzen direnak, bustidura/bustidura eza: 'sorgina'/'sorgiña'. Larramendik horrelako gutxiago ditu. Azkenik, tildearen erabilera ere aipatu behar jesuita biek erabiltzen dutelako. Larramendik: 'alozá', 'especá', 'amaratú', 'armá', 'lotú', 'artimañá'. Terrerosek, ere, azken silaban ezartzen du: 'quisyerá', 'atzá', 'sallá', 'basá', 'zamanzá', 'zancadá' eta, batez ere, '-tu'z amaitzen diren partizipioetan: 'atsartú', 'carleatú', 'ambatatú', 'chaboatú', 'jaboatú'. Edonola ere, gehienetan, tildea hitzak forma mugatuan ematen dituenean agertzen da, baina ez sistematikoki kasu guztietan: 'barandestéa', 'baratatzéa', 'fedéa'.

Laburbilduz eta atal honekin amaituz, jarrai daiteke Larramendiren eragina Terrerosengan bistakoa dela; agian, ezinbestekoa ere izan zela esan beharko litzateke turtzioztarra euskaraz mintzatzen ez bazen. Dauden ezberdintasunen arrazoiak ez dira erraz ematen ahal. Batzutan, Terrerosak berak gaizki ulertuak izan daitezke ere eta, noski, zenbaitetan erratu tipografikoak ere badaudela esan beharko litzateke. Hala ere, hasieran esan duguna, zenbait txandaketa baden arren, eredugarria da grafien irmotasuna. Eta hori, euskararen arloan, Larramendiri zor zaio, bere garaiari aurre hartuz, euskararen hotsei begiratuz arau propioak proposatu zituelako, beste hizkuntzen grafiak saihestuz eta baita zenbait etimologia ere²⁶. Bestalde, kontutan hartzen bada gaztelaniari Terrerosen egin zion ekarria, ziur gaude erabat ados egongo zela Larramendiren proposamen eta erabilera grafikoekin.

25. Larramendik 'Bizcocho' hitzean horrela dio: "viene del bascuence *bizgoiso*, *bizgoxo*, pronunciada la x a la latina."

26. Ikus, zehatzago nahi izanez gero, Pagola (1991: 261).

4. LARRAMENDI ETA TERREROS: ETIMOLOGISTAK ETA LEXIKOGRAFOAK

Terrerosok euskararen apologia egiterakoan ez ditu azaldu ditugun ideia horiek bereak bezala agertzen. Ez du teorizatzen, besteen iritzi bezala aurkezten ditu. Hala ere, hiztegiaren garapenean, hitzen jatorriaz eta etimologiaz diharduenean, ez du inolako arazorik gaztelaniako hitzei buruz euskaratik hartuak direla esateko. Baita alboan ematen duen latineko hitza bestearen berdina izan arren ere. Latinekoa ere euskaratik datorrela esaten baitu gehienetan Larramendiren autoritatean oinarrituz: “Arar: Se dice en Basc. *Areatu*, de donde se toma, segun el P. Larr. el cast. y el lat.” (1987-1: 137).

Terrerosok gaztelaniaren hiztegia egitean begien aurrean zuen helburu nagusia, ez bakarria, Akademiak batzen ez zuen zientzia-terminologiaz osaturiko hiztegia prestatzea zen. Izan ere, Plucheren *Espectaculo* obra itzultzerakoan arazo handiak izan zituen hitz teknikoak gaztelaniaz nola esan ez zekiela. Ez dirudi helburuen artean gaztelaniako hitzen jatorria eta etimologia emateko asmorik zuenik. Hala ere, aunitzetan hitzen etimologiak ematen ditu zenbaitetan grekotik jasota, bestetan latinetik, eta euskaratik ere, noski. Gai konplexua eta liskarreragilea dela ohartzen da, batez ere euskarazko etimologiak sartzan dituenean, eta ez zuen hori aipatu gabe utzi sarreran, garaiko eztabaiden berri emanez:

Y estando en medio de la disputa, se les acerca la lengua Bascongada y dice redondamente que la voz es suya por la mayor vecindad, por la antigüedad, y porque la semejanza de la voz y significación trahen notoramente el carácter del Bascuence (Sarrera: xx-xxi. or.).

Nolanahi ere, bere burua bada ez bada zuritu nahirik edo, aldez aurretik igortzen du mezu esanguratsu hau:

En toda la obra que va a salir a la luz se hallarán no pocos pleitos y contestaciones semejantes, dejando a cada cual la libertad para que se declare por la parte que le pareciere mejor o por ninguna, que será muchas veces el partido mas seguro, pues vemos a los litigantes caminar a tientas y como dicen a bulto (Sarrera: xxi. or.).

Sarreran bertan zenbait adibide ipintzen ditu *Gabela*, *Heraldo* hitzetan Larramendiren etimologiak ekarriz. Hiztegiaren gorputzean, hitzen azalpena garatzen duenean, hainbatetan agertuko du hor esaten duena: “Guindar: Izar, alzar, levantar. *Sejourn* dice que es tomado del Fr. pero el Francés, y Castellano son tomados del Basc. *Guindatu*, que significa lo mismo” (1987-2: 250).

Beste kontu bat da zein helburu izan zezakeen Terrerosok bere hiztegian euskal hitzak sartzan, eta galdera horrek ez du erantzun errazik. Hain sarrera sakon eta luzea hiztegiari egin arren, non, bere hizkuntza ideiekin batera, hiztegiaren giltzarriak zehatz agertzen dituen, ez du inon ere aditza ematen euskarazko hitzen hain kopuru handia zertarako edo zergatik sartu zuen. Ezin daiteke esan errepertorioak osatzeko sartu zituenik: dialektalismoak, amerikanismoak, ijituen jargoia, e. ab. Horiek denak zehaztasun eta

aberastasun handiz eskaintzen ditu, non erabiltzen diren adieraziz, azalpen murriztagoarekin batzuetan, baina gehienetan testu-inguru zabalagoan ezarri, argi gelditu dadin zein den hitzak duen balioa eta hartzen duen esanahia. Geografikoki egiten dituen kokapenak ere aberatsak dira eta, zenbaitetan, lurralde hurbiletako hitzen artean ezberdintasunak gertatzen badira, hori ere seinatu egiten du, adibide baterako, Cantabria eta Enkarterrietako hitzak bereiziz²⁷. Bestalde, goian aipatu den bezala, Terrerosen munduko edozein lekutan erabilgarri izan zitekeen hiztegi bat egitea nahi izan zuen, horretarako lau hizkuntza nagusitan ipiniz. Sarreraren amaieran gehiago zehazten du hizkuntzen edukia eta partaidetza:

[...] he tenido que poner la mira en 10.000 términos que regulo por buena cuenta en la diversidad de acepciones de las voces y modos de hablar que traigo; de que van en cuatro idiomas, y muchas de ellas en seis (Sarrera: xxxiv. or.).

grekoa eta euskara gaineratuz, alegia. Eta kontuan hartu behar da goian esandakoa ere, hots, hiztegiari ipini zion izenburuan, ziurrenez, euskara ere sartu zuela. Beraz, hasierako galderari erantzunez, euskararena ere sartu nahi izango zuen.

Hala ere, bada pisuzko beste arrazoi bat bazter ezin daitekeena: Larramendiren hiztegiaren ildotik jarraituz, euskarazko hitzak sartzen ditu gaztelaniazko hitz aunitzen jatorria euskaran aurkitzen zuelako:

Es demasiado estimable un solar noble –gaztelaniari buruz–, para que le miren con tanta indiferencia los sabios: antes bien se verá el mucho caso que hago de la etimología por la multitud de voces castellanas á que doi la equivalencia ya en el idioma bascongado y ya en el griego, únicamente para que se sepa el orijen de donde vienen: de manera que aunque no se exprese á las claras, siempre que se da en esta obra la significación griega ó vascongada de la voz, es como poner una mano ó una muestra que esté señalando la raíz de que procede (Sarrera, xxii. or.).

Garbi adierazten du gaztelaniazko hainbeste hitz nondik datozen jakinarazteko sartzen dituela euskarazko hitzak, bide batez jatorri hori leinu ospetsutzat hartuz. Halere, hiztegian agertzen den euskal hitzen bilduma begiratzuz, jatorriaren arrazoa ez da aski kasu aunitzetan. Beste arrazoi batzuk ere badaude, askotan garbi ageri duelako gaztelaniazko hitzaren parean euskarazkoak era ezberdinetan sartzen dituela, etimologiarekin inolako zerikusirik gabe. Tipologia beste kasutara zabal daiteke, batzuetan, ez gutxitan, euskarazko hitza baino ematen ez duelarik. Hona, jarraian, zenbait adibide:

- a. Gaztelaniazko hitzaren parean euskarazko bat agertzen du: **Herrón**: en Basc. se llama *Ola-jauna*. **Macero**: *Arotza*; **Gañan**: *Necazaria*. **Cosér**: josi. **Guadaña**: *Sega*. **Guadañero**: *Segaria*. **Vale**: agur.

27. Ikus, esaterako, Echeverria Isusquiza (2001: 103).

- b. Gaztelaniatik hurbil datorrenarekin batera, euskarazko bat: **Regalo:** *Erregalooa, doaiña*. **Lienzo:** eunã, linteoa. **Guardia:** Goardía, zaindia. **Izaga:** izaga, iteguia. **Manta:** Cubierta de cama, *manta, manteá, seyala*.
- c. Azalpena eginez: **Alaga:** *Gari mota bat, alaga, alaguéa*.
- d. Sarrera bezala euskarako hitza ematen du zuzenean, gaztelaniakorik gabe: **Jaincoa, Jincoa:** Sincope de *Jaungoicoa, Dios*. Berdin, **Lau-buru, Zamarra** edo **zerria, naba**, e. ab.

Etimologiaren aipamenak eginez:

- a. Gehienetan euskal hitza ematen du beste aipamenik gabe: **Raya:** V. Basc. *Arraya* de *arraya, arraina*; **Aurragado:** Es tomado del Basc. *Aurraca, aurreraca*. **Mochil o motril:** El muchacho que sirve a los labradores. V. es del Bascuence *motil o mutil, muchacho o sirviente*.
- b. Etimologia ematen du, baina iturria adierazi gabe: **amesnador:** Voz antigua Española, tomada del Basc. *Amets, ametsa, sueño*. **Derrengarse:** Quebrarse las ancas, etc. Viene del Basc. *Errendú*, que significa *hacer cojo*. **Perinola:** Pieza de madera u otra materia a quien se pone una punta sobre que da vueltas para jugar. Basc. *Perinola* de *Arinola*, madera lijera.
- c. Zenbaitetan, jatorria agertzen duenean, bere iritzia soilik agertzen du beste baten aurka bada ere: **Lastrar:** En la Marina, poner lastre a la Nave. Basc. *Lastratu, lastatu*, de donde se tomó la voz, y no del Céltico *lastra*, como quiere el *Dicc. de Trev*. **Galería:** Estancia o corredor de una casa [...]. Basc. *Galeria*. Y así tiene el origen Basc. y no Fr. Como quiere Sejourne.
- d. Beste batzuetan jatorria euskaraz ezartzen du, baina ziurtasunik gabe: **Azafrán:** parece mas natural que venga del Basc. *Azafraya*.
- e. Inoiz, frantseserako ere ematen du: **Zumaque:** Planta que crece hasta la altura de un hombre [...]. Basc. *Tanaoa, zumaquea*, de donde se infiere que no solo el Cast. sino tambien el Frances *Tan*, vienen del Bascuence.
- f. Askotan, Larramendiren aipamenak modu ezberdinetan egiten ditu:
 - V. *Larr. Dicc.*, (horrelakoetan ez du etimologia azaltzen): **Orobias, orobia;** **Parar, paratu;** **Asisia:** Voz antigua de Aragon, tomada del Bascuence *Assí, assitzea*, que significa *empezar*, y es el significado primitivo de *asisia*. **Zaga:** Carga que se acomoda en la traseña de los carruajes. Basc. *Zagá*. **Zarria:** Lo mismo que zarpa, y cazcarria. V. Basc. *Zarria, zerria*.

- Azalpena emanez, zuzenean Larramendi aipatuz: **Ostra**: *ostra, ostrea*. Larr. dice que ostra es del Bascuence. **Zamarra**: Vestido de pellejos con su lana. Tambien se llama así la piel de carnero. [...] El P. Manuel de Larram. la halla por todos caminos mas cerca, por ser *Zamarra* voz bascongada como contracción de *zamanarra, zamalarrua*, que significa *pellejo de cargas*, porque sirve para cubrirlas. **Mama**: Larramendi la halla más cerca en el Bascuence de *Ama*, que es *Madre*, así como *Aita, Padre* y como los niños la repiten, hallan uno y otro nombre *mama* y *taita* por *madre* y *padre*.
- Besteen iritziak ere kontutan hartuz –Cobarrubias, Sejour, Oudin, el Dicc. de la Academia, ...-, baina beti Larramendiren autoritatea hobetsiz: “pero el *Padre Larr*”. **Algarada**: Grita y vocearía. *Covarr.* se inclina a que la voz se tomó del Italiano. Algunos dicen, como acostumbran, que es del Arabe y que significa *tumulto estratajema, burla, sedición*; pero el *Padre Larra*. la halla puramente bascongada y con la misma significación, con raiz mui proporcionada de *algara*, en bascuence *grito* y *dá*, que significa el modo de la acción. **Artiaga**: Según *Oudin*, en lengua bascongada es lo mismo que robledo o robledal o lugar lleno de robles o encinas. Pero *Larram.* no da este equivalente sino el de *Ariztiya, aristegui, arizaga*, etc. **Marca**: Lo mismo que mojon. V. Lat. *Limes, marca* unos dan a esta voz el origen del latín: otros del Fr. *Marquer*; y otros del teutónico *Mark*; pero el P. Larr. le halla mas cerca y mas natural en el Bascuence.

Azkenik, beste talde bat aipatu behar da Terrerosen hiztegian. Euskarako hitzen sarrerak, deigarria ere dena hiztegia gaztelaniakoa baita. Tarteka tarteka, badaude hainbat adibide, hemen banakaren bat baino ez badugu aipatzen ere: *Artiaga, babazorro, Jaincoa, Lau-Buru*. Beste talde batean ere sartuko nituzke zenbait hitz, bereziak gertatzen direnak ematen duen azalpenagatik:

Cántabra o *Cántabro*, estandarte antiguo de los Cántabros o Vizcaínos: y que tomado de ellos le introdujo Augusto en los Ejercitos Romanos, y es el mismo que el *Lábaro*. *Gabacho*, voz Bascongada, que se dice por desprecio a los Bearnese, y otros habitantes de las Montañas de Francia, que abundan en riachuelos y rocas, que se llaman en Basc. *Gabes* o *Gabas*, y los riscos *acha, aitza*, y por esto lo toman hoy por vil, despreciable. *Vale*, al despedirse, Dios te guarde, o de salud. En Bascuence se dice *Agur*, ya introducido en Madrid.

Semana Triduari ere ematen dion sarrera oso interesgarria gertatzen da:

Semana de tres días [...] y que acaso se usó en muchas partes en la antigüedad y certísimamente en la Cantabria, pues quedan en su lengua, siempre, o casi siempre, significativa, vestigios claros de esta semana en los nombres.

Eta astearen egunak euskaraz ematen ditu, zenbait kasutan aldaki dialektalak sartuz, esanahiarekin batera. Toponimoak ere oso aipagarriak dira,

hirien izenak batez ere, Alaba, Barcelona, Bizcaya, Navarra, Zaragoza, denek euskararen duten jatorria zehazki azalduz. Puntu honi dagokionez, Andrés de Pozak erabilitako metodologia aplikatzen du, hau da, toponimiaren analisi etimologikoan oinarrituz, euskararen hedadura Penintsula osora zabaldu.

Terrerosek sarreran ez ezik hiztegiaren barruan ere Larramendiri buruz egiten dituen aipamenak ugariak dira. Egin ditugun kontuak zuzen badaude, 182 hitzen euskal etimologiak ematen ditu. Horietatik, 74tan jesuita andoaindarra aipatuz eta gainerako 107etan ez. Erreferentziak modu haue-takoak dira:

Voz antigua Española tomada del Basc.; Vid. Basc.; Es del Basc.; Es tomado del Basc.; De modo que en lengua bascongada quiere decir; En Basc. se llama; Son voces del Basc.; Parece mas natural que venga del Basc.

Zenbaitetan luzeago ere egiten du. Bestalde, Terrerosen hiztegian, aurre-rantzean *DC*, agertzen diren euskal etimologiak eta azalpenak Larramendik bere hiztegian, hurrengoetan *DT*, dakarrenekin erkatzen badira, aski bat datoz eta ezberdintasunak txikiak izaten dira:

DT: “Machin, así se llama en bascuence á Martin entre los rústicos y *olaguizones*, y de aquí llaman los poetas á Cupido Dios *Machin*, por haber nacido en la herrería de Vulcano”.

DC: “Machin, es voz bascongada, que quiere decir *Martín* y se toma por mozo de herrería y los Poetas llaman tambien Machin á Cupido, porque nació en la herrería de Vulcano”.

DT: “Taita, es voz con que los niños llaman á sus padres y es bascongada, contraccion de la repetición *aitaita*”.

DC: “Voz con que los niños llaman al padre. Vid. Padre”.

Batzuetan *DC*-k analisiarekin batera biltzen ditu: “el *Padre Larr*. la halla puramente bascongada y con la misma significación, con raiz mui proporcionada de *algara*, en bascuence *grito* y *dá*, que significa el modo de la acción”. *DC*-k baditu *DT*-k ez dakartzan hitzak ere: lehen aipatu ditugun toponimoak, Araba, Bizcaya, Navarra, Barcelona, Zaragoza. Zenbait hitz: “*Ragua*: hoyo inmediato a la herrería a modo de calera para echar la vena y fundir el hierro. Basc. *Arragua*. “*Arriaga*: Lo mismo que pedregal ó lugar lleno de piedras. Vid. Oud. y pedregal. Basc. *Arrieta*”. *DT*-k, “*Arriaga*” ez du batzen eta “*Pedregal*” hitzerako euskaraz: *arcoscadia* eta *arrieta* ematen ditu. “*Ponerse de hinojos*: arrodillarse. Basc. *Balaunicatú* (sic)”. Beste talde batean sartuko genituzke beste hitz batzuk, zeintzuetan Terrerosek Larramendi aipatzen badu ere, *DT*-an ez dira agertzen edo ez sarrera horrekin behintzat:

Artiaga: Según Oudin, en lengua bascongada es lo mismo que robleado ó robleal ó lugar lleno de robles ó encinas. Pero Larram. no dá este equivalente sino el de Ariztia, aristeguia, arizaga, etc.

Gutxitan bada ere, azeptio ezberdinarekin: “*Nava*: tierra llana, es voz bascongada, y de aquí á la palma de la mano” *DT*-an; “*Nava*: Llanura, campo raso y extendido. Es voz Bascongada. V. *Navarra*” *DC*-an.

Bi hiztegien arteko neurriaz ohartzeko, zenbait hitz-kopuru azaltzen dira. Terrerosen hiztegiak 60.000 mila sarrera ditu gaztelaniaz. Horietatik, euskararekin osatuak, 1.369. Beraz, hiztegi osoaren % 2,27 hartzen dute. Bestalde, sarrera batek hitz bat baino gehiago eduki dezakeenez: *Semana tridua: aste-lena, aste-artia, aste-azquena, Ost-eguna, Ost-irala, Bari-eguba, Larumbata, Zapatuba, Igandia*, esaterako, euskaraz agertzen diren hitzak, orotara, 1.729 dira. Larramendiren DTrekin erkatuz: honetan euskaran jatorria duten gaztelaniako hitzak 1.887 dira. Beraz, hiztegiak orotara dituen hitzak 43.000 direnez, hiztegi osoaren % 4,38 egiten dute.

5. LARRAMENDI ETA TERREROS: HITZEN HAUTAKETA ETA AZEPZIOAK

Orain arte ikusi dugunarekin, badakigu euskararako Terrerosek izan zuen iturri nagusia, lexikografia mailan batez ere, Larramendiren hiztegia izan zela. Baina Terrerosen formazioa eta nortasuna agertzen da bere obran, ez baitzuen itsu itsuan jarraitu. Badaude aipagarri gertatzen diren zenbait aldaketa, eta horietako bat hitzen hautaketari dagokio.

Larramendik gaztelararen hitz sarrera baterako euskarazko termino bat baino gehiago ematen dituenean, Terrerosek askotan gaztelarako formatik hurbilen gelditzen dena hartzen du. 'Alabanza' hitzean Larramendik ematen dituen parekoak dira: 'alabanza', 'doandigoa', 'laudorioa'; Terrerosek, 'Alabanza' bakarrik. 'Apartar' sarreran, Larramendik: 'apartatu', 'alderaguiñ', 'bereistu', 'bereci', 'berecitu'; Terrerosek, 'apartatu'. Larramendik, 'balcon'erako: 'baranda', 'pendiza', 'balcoya'; Terrerosek, 'balcoya'. 'Arar' sarreran hona zer dioen Terrerosek: "Se dice en Basc. **Areatu**, de donde se toma, segun el P. Larr. el cast. y el lat.". Zein izan daiteke Terrerosek hainbestetan jarraitzen duen jokabide horren arrazoia? Erantzuna askotarikoa izan daiteke, baina nagusi bezala bat seinalatuko nuke. Terrerosek bere hiztegian gaztelaniako hitz askok euskaran dutela jatorria adierazi nahi du; bestela esan, euskarako forma gaztelaniakoaren etimologia argitzeko ekartzen du, eta ez hainbeste forma lexikaletan euskararen aberastasuna agertzeko. Hori izan daiteke, baita ere, forma jatorragoak diruditenak ez hautatzeko arrazoa ere. Hona beste adibideren bat: *DT*:

Bahia, es voz puramente bascongada y significa puerto; y llamamos *bayona* al buen puerto, y aquella deprecacion frecuente en labortano *bayonean eltzea*, de que lleguen felizmente al puerto.

DC: *bahia* terminoa soilik, besterik gabe. Edonola, jokabide honek salbuespen ugari ere baditu: DC: 'Guisa', 'moldea'; 'guapoa', 'ederra'; 'guacharrada', 'blostada'; 'lastima', 'cupida' eta abar luzea. Eta jokabide horretatik erabat aldenduz, "Barateria" hitzean, esaterako, Lar. "el cohecho del juez, tiene el mismo origen bascongado, *barateria, baratasuna*". Terrerosek, aldiz, azken forma *baratasuna* baino ez du batzen.

Beren hiztegiak egiteko, bi hiztegi gileen helburuak berdinak ez ziren bezala, hitzen trataeran ere bada beste ezberdintasun nabarmen bat. Terrerosen hiztegia gaztelerara zuzendua da, sarrera bakoitzeko hitzaren azalpena oso garbia da, hitz teknikoek kasuan, andoaindarrak ez bezala, zein zientzia jakintzarekin lotzen diren ere esanez: “Amarrazon, amarras”, “En la marina,...”; “Arteria: Termino de Anatomía,...”, “Balaustres, Termino perteneciente á la Arquitectura,...”. Larramendik euskarazko eremuak garatzen ditu, gaztelaniako hitz baterako zenbait euskal lexema –sinonimo edo sinonimotzak– emanez, baita hitz baten balio ezberdinak ere bereiziz eta bakoitzari bere sarrera eskainiz: “Apostar” hitzak hiru esanahi ditu eta beste hainbeste sarrera; “apostado”k, bi. Terrerosek, ordea, oro har, lexema bakoitzeko sarrera bakarra du. Izan ere, Larramendik hizkuntza arruntaren hiztegia egin nahi izan zuen, Terrerosek, berriz, esan bezala, zientzietako hitz propioak bildu nahi izan zituen, eta horien ezaugarrietako bat unibokoak izatea da.

Bada beste ezberdintasunik ere bien artean. Terrerosek forma mugagabearen ondoan forma mugatua ere askotan ematen du. Larramendik ere bai, baina ez haren maiztasunarekin. Eta ez beti hitz berean ere. Terrerosek: ‘brecha’, ‘brechea’; ‘escoba’, ‘escobéa’; ‘estrata’, ‘estratea’; ‘manta’, ‘manteá’. Larramendik: ‘almená’, ‘almeneá’. *Algarero* sarreran, Larramendik: ‘Algararia’, ‘algaraguillea’, ‘ojularia’, ‘ojuguillea’, ‘deadarcaria’, ‘deadarguillea’. Terrerosek: ‘Algararía’, ‘algaraguilléa’. Larramendik: ‘arbol’, ‘arbola’, ‘arecha’, ‘zuhaitza’. Terrerosek: ‘arbola’.

Hitzen hautaketarako, Terrerosek ez du irizpide finko edo bakarra. Askotan, Larramendik, sarrera baterako, euskarazko hitz etimologikoaz gain, beste hitz bat edo hitz sail bat ematen du. Terrerosek, eskuarki, azkena jasotzen du Larramendik egiten duen etimologiaren aipamena bildu gabe utziz. Larramendik: “*Juego de naipes*, viene en francés y castellano del basco. *Batzeta*, juntar, amontonar, [...]. *Baceta*”. Terrerosek, aldiz, “*Baceta*: juego de naipes, en que el banquero lleva siempre el naipe y pone la banca ó dinero que sirve de base al juego. En Bascuence se llama también *bacéta*”. Beste batzuetan, berriz, ez du horrela egiten. Larramendik: “*Haz, manojo de trigo, leña, etc. Sortá, aldaca, sendorra, azautoa, zama, azaoa [...]* viene del Basc. *Azaoa*”. Terrerosek, ‘*azaoa*’.

Azkenik, edukiaren aldetik, sarrerei Terrerosek DC-an euskarako hitzei ematen dizkien azepziotan, oro har, DT-koak hartzen ditu. Baina, zenbaitetan, osatu egiten ditu. Hona adibide batzuk:

DT: *Añascar*: voz anticuada, enredar, embrollar, viene del basco., como si dijera *mañascar*, de maña y *asca*, *ascatu*, lo que necesita de maña para desatarse, como es lo que se embrolla y enreda. *Nastu, naasi*.

DC: Voz anticuada, lo mismo que embrollar, enredar, desordenar. V. Basc. *Nastu, naasi, Cerv., Don Quijote: pero el diablo, que todo lo añasca, etc.*

DT: *Vale*: al despedirse, *agur*.

DC: *Vale*: Al despedirse, Dios te guarde ó dé salud. En Basc. se dice *Agur*, ya introducido en Madrid.

6. AMAITUZ

Larramendiren eragin zabala ezaguna da eta aztertua ere izan da ikuspuntu ezberdinetatik. Bestalde, eragina baino gehiago dena, hiztegiileen-gan eta haien hiztegietan Larramendik duen presentzia gauza jakina da: Azpitarteren eta Aizkibelen hiztegietan, besteak beste. Baina, Terroros ez zen sartzen talde horretan, bere hiztegia ez ezik, bera ere ez zelako ezaguna. Aurrerantzean, Terroros, jesuita bizkaitarra, hiztegi gintzako beste ikuspuntu batetik bada ere, zerrenda horretan sartu egin beharko da. Haren eraginez eta haren hiztegia baliatuz berean sartzen duen euskal hitz kopuru handiarengatik eta honen lanean euskarak duen neurtzen ez den presentziagatik.

Terrorosek euskarari eskaintzen dion ekarria, beste arlo batzuetatik ere, aberatsa da. Euskararen apologista izan zen, euskara Penintsula osoan hedatua zela defendatuz, kantabrisismoaren ideiak ere barruan sartzen direlarik. Bestalde, XVIII. mendean ez ezik, hurrengo mendeetan ere Terrorosen figura handia izan da eta, denbora iragan ahala, haren lanak gero eta estima zeintifiko handiagoa du, erraldoi baten mailan jartzeraino. Euskarari dagokionez ere, beste apologista handien parean jartzen da, Hervás y Pandurorean, esaterako. Arrazoi horien aurrean, Terroros bizkaitar ospetsuak baluke, dudarik gabe, bere tokia euskararen historiografian.

Handia izan zen Larramendiren eragina Terrorosen lanean eta, ziurrenez, haren euskararekiko kontzientzia pizten eta formatzen ere. Zenbaiterainokoa izan zela esan daiteke? Ez dago hori jakiteko biderik. Nolanahi ere, andoain-darra ez du itsu itsuan jarraitzen eta, zenbait arlotan, ekarri propioak ere eskaintzen ditu. Bestalde, nabarmendu behar da bereziki XVIII. mendean egin zen hiztegiarik garrantzitsuenean euskararen maila bateko presentzia agertzen dela.

Bada beste puntu bat ere agian Larramendirekin zerikusirik izan dezakeena eta, labur bada ere, ekarri nahiko nukeena: Terrorosek datuak jasotzeko izan zuen metodologiarena, hain zuzen. Terrorosen lanen ikerlariak aipatu izan dute aitzindaria izan zela hiztegia batzeko materialak jasotzeko eran, kanpo-lana eginez bildu zituelako. Hori horrela izan zen eta deigarri gertatzen da nola ibili zen hainbeste tokitan jendearen ahotik jasotzen liburuetan aurkitzen ez zuena. Larramendik ere bere hiztegia egiteko metodologia berdina jarraitu zuen, kanpo-lanen eta dialektologoaren modura, herriz herri lekuko egokiak bilatzen ibiliz, haien ahotik informazio zuzena jasotzen saiatuz, galderak era ezberdinetara taxutuz. Hitz batez esanda, gaur egungo kanpo-lanen metodologiara, distantziak salbu, hurbiltzen zelarik. Horregatik, Larramendiri eman behar zaio lehentasuna, eta ez dut dudarik honetan ere bera izan dela aitzindaria.

Galdera da Larramendik eraginik izan ote zuen alderdi horretatik ere Terrorosengan. Hiztegiari dagokionez, baietz esan beharko da, Terrorosek

bera hasi zuenerako Larramendirena argitaratua baitzegoen, eta haren sarrera luzean andoaindarrak zehatz mehatz kontatzen baitu hitzak batzeko jarraitu zuen metodologia guztia²⁸. Hiztegiak biek idatzi zuten metodologia-aren deskribapena erkatuz gero, ikusten da elkarren zein antz handia duten biek. Hala ere, Terrerosen alde bada begi aurrean izan behar den datu esanguratsu bat, *Espectaculo* obraren itzulpenari dagokiona. Lan zaila gertatu zitzaion itzulpen hori egitea, obra zientifikoa baitzen eta, ondorioz, hitz teknikoak josia. Non aurkitu frantsesetik gaztelaniara pasatu behar zituen hitz horiek? Orduko hiztegi eta obra tekniko guztiak bildu eta kontsultatu arren, zeukan hutsunea handia zen:

Generalmente, hablando al buscar conchas, peces, insectos, frutas, hierbas, máquinas, partes y piezas que las componen, solo hallaba por respuesta la generalidad, el silencio o el error²⁹.

Beraz, beharrezko gertatu zitzaion iturri zuzenetara joatea, aldeaz aurretik prestatutako galdekizunaren bitartez, jendearen ahotik erantzunak jasoz. Hona nola kontatzen duen berak:

Todo el día estaba preguntando en la huerta, en el campo, en la tahona, en las tiendas, en las casas y en las calles. Hacía mi diversión de toda especie de máquinas: acudía donde funden campanas, acuñan moneda, abren láminas, fabrican tapices y labran maderas, etc., y formando un catálogo de preguntas, les pedía respuesta a los maestros y oficiales.

Eta horrela ez banaka batzuei, askoi baizik: “Pasarán de quinientas personas las que han cooperado poco o mucho de estos informes”.

Beraz, berriro galderara itzuliz, Larramendiren eraginik izan al zuen Terrerosen? Plucheren lana 1744 urtearen inguruan hasi omen zen itzultzen eta 1750erako bukatua zuen, urte horretan argitaratzeko baimena eskatu baitzuen³⁰. Ordurako Larramendik *DT* argitaratua zuen (1745). Izan zuen, bada, egokierarik turtzioztarrak hartatik ideiak hartzeko eta haren eredu jarraitzeko. Edonola ere, hemen ez da hain garrantzitsua auzi hori erabakitzea. Biak izan baitziren handiak, biak lan izugarria egin zuten eta, gaurko ikuspegiz begiratuta, jesuita bien lana egundokoa izan zen, eta eurek ere bazioten elkarri errespetua eta miresmena³¹.

28. Gai hauek zehatzago ikusi nahi izanez gero, garatuagoak daude in Pagola (2001) eta (2008: 434-435) lanetan.

29. Itzultzaileak obrari egiten dion sarreratik hartua. Orrialdetu gabea. Hurrengo aipamenak ere berdin.

30. Plucheren itzulpen honi buruzko informazio zehatza Gómez de Enterría Sánchez (1981)an aurki daiteke.

31. Larramendik ere Terrerosen iduri ona idatziz agertu zuen, Pagola (2008: 435, 107. oharra).

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALTUNA, P. "Aita Larramendiren bizitza". In: PEREZ GAZTELU, E.; ZULAIKA IJURKO, E. (Ed.). *Haizeak ez eramango!* Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 2002.
- ALVAR EZQUERRA, M. "Presentación". In: *Terreros y Pando*, 1, 1987; V-XVI. or.
- ÁLVAREZ DE MIRANDA, P. "En torno al Diccionario de Terreros". In: *Bulletin Hispanique* 94-2, 1992; 559-572 or.
- . "Perfil biográfico del Padre Terreros". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. (Koord.), 2008; 127-142. or.
- AZORIN FERNÁNDEZ, D.; SANTAMARÍA PÉREZ, M^a I. "El Diccionario de Autoridades (1726-1739) y el Diccionario Castellano (1786-1793) de Terreros y Pando ante la recepción de las voces de especialidad". In: *Revista de Investigación Lingüística*, 7, 1. zkia., 2004; 49-69. or.
- BURRIEZA SÁNCHEZ, J. "Esteban de Terreros: retrato jesuítico de un maestro de la palabra". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. (Koord.), 2008, 293-328. or.
- ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, I. "El primer vocabulario montañés y otros vocabularios castellanos. Terreros y la dialectología en España en el siglo XVIII: la experiencia del léxico". In: *Boletín de la Real Academia Española*, 81, c 282, 2001; 53-159. or.
- GÓMEZ DE ENTERRÍA SÁNCHEZ, J. "El Padre Terreros traductor de la obra de Pluche". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. (Koord.), 2008; 249-273. or.
- JIMÉNEZ RÍOS, E. "Terreros, crítico de la Academia". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. (Koord.), 2008; 795-908. or.
- LARRAMENDI, M. de. *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Donostia: Hordago (ed. faksimila), (1729) 1979.
- . *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latin*. San Sebastián: Pío Zuaza, (1745) 1853.
- . *Corografía o descripción de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. San Sebastián (Tellechea Idígorasen edizioa), Donostia, 1969.
- LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. (Koord.) (2008). *Esteban Terreros y Pando: vizcaíno, polígrafo y jesuita. III Centenario: 1707-2007*. Euskal Herria Saila, 29. alea. Bilbao: Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea, CD-ROM batekin osatua, 2008.
- MITXELENA, K. "Miscelanea filológica vasca III". In: *Palabras y textos*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, (1979) 1987.
- PAGOLA, R. M. "Larramendi eta dialektología". *Manuel Larramendi, Hirugarren Mendeurrena 1690-1990*. Andoain, 1991; 247-265. or.
- . "Terreros y su contribución a los estudios de la lengua vasca". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C., 2008a; 405-440. or.
- . "Euskal lexikoa Terrerosen hiztegian". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C. 2008b; 837-914. or.
- PLUCHE, N. *Espectáculo de la Naturaleza o Conversaciones acerca de las particularidades de la historia natural, que han parecido más a propósito para exercitar una curiosidad útil y formar la razón a los Jóvenes Lectores* (16 vol.). IBARRA, J. Madrid, 1753-1755. (Traducción y notas de E. Terreros y Pando). Guk erabili duguna Bizkaiko Foru Aldundiak digitalizatua duen edizioa da: R-5682.

SÁNCHEZ-PRÍETO BORJA, P. "Paleografía y ortografía en la obra de Terreros". In: LARRAZABAL, S.; GALLASTEGI, C., 2008; 387-404. or.

TERREROS Y PANDO, E. de (S.l.). *Espectáculo de la Naturaleza, o conversaciones acerca de las particularidades de la Historia Natural*. (Vid. Pluche, N.).

———. (1758) *Paleografía española: que contiene todos los modos conocidos, que ha habido de escribir en España, desde su principio, y fundacion, hasta el presente á fin de facilitar el registro de los archivos, y lectura de los manuscritos,...*: substituida en la obra del espectáculo de la naturaleza, en vez de la paleografía francesa, IBARRA, J. Madrid, 1753-1755 y 1758. (*Espectáculo* obraren XIII. alea da). Guk erabili duguna, Bizkaiko Foru Aldundiak digitalizatua duen 1758. urteko edizioa da.

———. *Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes y sus correspondientes en las tres lenguas francesa, latina é italiana*. Madrid: la Imprenta de la Viuda de Ibarra, Hijos y Compañía, 1786-1793, (3 ale). Gure aipamenak edizio faksimiletik hartuak dira: (1987), Madrid, Arco, (4 vol.), eta Bizkaiko Foru Aldundiak digitalizatutik duen ediziotik: VR-722.

